

URREKOATXA

POR JESUS DE ALTUNA

Sarritan esan dogunletz, mendigoizaleak mendi guztiak doguz maite, baña, alanda-be, edolein alderdetara guazengan, al-badogu beintzat, mendirik andien edo aitz-muzturrik gorengora igotea atsegindutzen jaku, beren aldamenian lagaten bikañik asko, oldoztubarik. Ez ikusgarriak bakarrik, jakin da ezautu biar litzakezan gauzarik-be bada gure mendi edo eurden larreñetan.

Onetariko-bat, gure lurralde'ko beste bazter askotakuak-letz, Urrekoatxa dogu, beren aitz-muztur zorrotz eta aldapa andiak, bitarte guztiak bedar txiki ta goxoz apainduta, artadian Jangarri eta ibiltarien pozgarri. Be-aldea badaukaz lerdoidi, edo piñudiak-be, baña goi-aldea garbi dauken ezker, ederto ikusten-da, beren gallurretik Arratia'ko aran guztia, Lemona'tik Zeanuri'ko Barazaz ganararte beintzat.


Urrekoatxa inguratuta dago basatxonuz (Ermitas), ainbat dira beren alderdi guztietan dagozanak, guk gertu dogun marrazti (Dibujo), onetan ikusiten dan-letz, baña, eurotatik garrantzitsuena, aintxiñekoa eta bere edestia dabelako, Lamindano'ko «Magdalena» Deuna esaten dautzoena-da. Matxalen edo Magdalena, esaten dautzde, onen eguna ospatutzen dabelako, baña, txadontxu-orren Jagole Deuna «Andra Mari», da.

Jakin dogunez, Lamindano'ko eleizatxuori-da Arratia'n lenengo zortuzana; Orregaitik izan litzake, auzune orren andoren dagon aitzaren izena ¡Urrekoatxa! bertotik zortua izatea.

Lamindano'ko badu beren ildegia-be, baña, ildegi-orretan ezin dabe auzkune'ko bizitanle guztiak lur-artu, baserri-etxe batzuen ezkubideak eta baserri-orretako lagiak, txadona egin-zanik orariñarte galaraziten dautzoelako Jakingarria irakurle.

Urrekoatxa'ra igoteko biderik erraz-enak edo onenak uste dogu oneik dirala: Areatza (Villaro)'ko lekaide-etxe (Convento) ondotik artu burdi-bidea, bitxabal barria igaro ta Jarritu Ogaragoitia auzune'tik zuren goiko gallu-

PYRENAICA



rrera erde-arte. Edo lenago esan dogun lekaide-etxe'tik igaro ta Jarraitu Lamindano'ra duan bidea, Petralanda basetxe ondorarte, eta, emen artu ezkomaldera doian burdi-bidea eta bide-orretatik Jarraitu lareun bat neurkin (Metro) ta lago bide ori eta ziarka-ziarka gallurrerarte

Belbilla edo tarrautan baguaz, Juan gintzake Dima'tik Otxandio'ra duan bitxabala-ziar Benta-zuri basatxe'raño, orretara ikusi gintzake emendik Indusi alderarte dagon aitzibitarte (desfiladero) bikañe. Benta-zuri (Venta-Txori esote dautsie batsuk)'tik urten gintzake eskomaran doran burdi-bide edo obe bide-ziurre-tik lenago esan dogu Petralanda basatxe ondora eta emendik, lenago aitatutako bidia ziari goiraño.

Beratz gatozenez, ibiltariak bagera, Jetsi Petralanda etxe ondotik Lamindano'ko «Andra Mari» ikusi ta Illunbe'ko aitzak ezkonara laga-ta Olazabal auzunetik Dima'ra, edo Illunbe'n ezker aldetik Aratzazu erri, baketsux ta politera. Mendi-zalea danak ordu batzuk igaroteko lurralde bikaña banetan.